

MERKATU SEGMENTAZIOA

Gure negozio-ereduaren funtsa, hau da, gure bezeroak, bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoetan irakasten edo ikasten duten pertsonak dira. Beraz, gu, bi segmentu desberdinei zuzenduko gara, ikastetxe publikoetako ikasle eta irakasleei, hain zuzen.

Ikasleen aldetik, zalantzak argitzeko, beraien kexak eta ikuspuntuak partekatzeko aukera izango dute. Batez ere ikasketa prozesuarekin ados ez dauden ikasleengan zuzenduta egongo da, gure bitartez irakaskuntza hobetu nahi dutenak. Guk haien kexak entzungo ditugu eta gero irtenbide bat ematen lagunduko diegu.

Irakasleen aldetik, berriz, haien zalantzak entzuteko eta bere irakaskuntza nola hobetu ahal izateko daukaten galderen erantzuna lortzeko aukera izango dute. Segmentu hau bere irakaskuntza egokia ez dela pentsatzen duten irakasleek eta hobekuntza baten bila dabiltzan irakasleek osatzen dute. Guk irakasle horiei laguntza eskaintzen diegu, ikasleek esandakoaren arabera eta, gainera, guk ikasle bezala daukagun proposamenak egingo dizkiegu helburu hori lor dezaten.

Orduan, zergatik gu aukeratu? Argi dago, gure kasuan, ikastetxe publikoetako irakasle zein ikasleen arteko harremana onuragarria izatea oso garrantzitsua delako, baita gaizki-ulerturik ez egotea ere, ikasgaiak hobeto irakatsiak izatea eta, ondorioz, errazago ikasteko aukera ematea. Aipatu bezala, gure bezeroak bi taldeetan banatuta daude, alde batetik; ikasleak, eta bestetik, irakasleak. Dena dela, bi multzotan banatuak egon arren, biek dute xede berbera: gora-beherarik gabeko ikaskuntza.